AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

1276

AGINDUA, 2013ko otsailaren 19koa, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuarena, Ricardo Crespo Jiménez jauna Bizkaiko lurralde-zuzendariaren kargutik kentzea xedatzen duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 50.2 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenez baliatuz, honako hau

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Ricardo Crespo Jiménez jauna Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Bizkaiko lurralde-zuzendariaren kargutik kentzea (kodea: 511786/6), eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu-uzte honek 2013ko otsailaren 21etik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean. Bi kasuetan, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean hasiko dira errekurtsoak aurkezteko epeak.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko otsailaren 19a.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
JUAN MARÍA ABURTO RIQUE.